

# Gipuzkoan zaurgarritasun bereziko egoeran egiten diren zaintza-esperientziei buruzko azterketa kualitatiboa

## **Sara Peña Valderrama**

SIIS Gizarte Informazio eta Ikerketa Zerbitzua,  
Eguía-Careaga Fundazioa  
spena@siis.net

## **Raquel Sanz**

SIIS Gizarte Informazio eta Ikerketa Zerbitzua,  
Eguía-Careaga Fundazioa  
rsanz@siis.net

## **Inti Fraile Aramburu**

SIIS Gizarte Informazio eta Ikerketa Zerbitzua,  
Eguía-Careaga Fundazioa  
ifraile@siis.net

## **Idoia Garcia Goikoetxea**

SIIS Gizarte Informazio eta Ikerketa Zerbitzua,  
Eguía-Careaga Fundazioa  
igarcia@siis.net

## **Imanol Ilárraz**

SIIS Gizarte Informazio eta Ikerketa Zerbitzua,  
Eguía-Careaga Fundazioa  
illaraz@siis.net

**Badira berariazko ezaugarriak eta zirkunstantziak dituzten zaintzaile talde batzuek kalteberatasun egoeran jartzen dituztenak. Literatura zientifikoaren arabera, kolektibo horiei ezkutuko-zaintzaileak edo ikusezin bihurtutako zaintzaileak deitu izan zaie, zaintzaileek eskura dituzten zerbitzuak edo baliabideak eskuratzen ez dituzten neurrian, edo, gutxienez, beste pertsona batzuek eskura ditzaketen neurri berean eskuratzen ez dituzten neurrian. Sarbiderik ez izatearen arrazoien artean daude, besteak beste, ezjakintasuna, egoera jasanezin bihurtu arte eskaera atzeratzea edo gizarte-estigmaren lotsa eta beldurra sentitzea. Hamar elkarrizketa erdiegituratu bidez Gipuzkoan jasotako esperientziak oinarri hartuta, ikusezin bihurtutako taldeen zaintza-esperientzien zeharkako azterketa kualitatiboa eta esploratzailea egin dugu, genero-ikuspegi interseksionala erabiliz.**

### **Gako-hitzak:**

Zaintzaile informalak, beharren ebaluazioa, zerbitzuen erabilera, irisgarritasuna, oztopoak, Gipuzkoa.

Existen grupos de personas cuidadoras con características y circunstancias específicas que las colocan en situación de vulnerabilidad. Este colectivo ha sido denominado por la literatura científica como personas cuidadoras ocultas o invisibilizadas, en la medida en la que no llegan a acceder a los servicios o recursos disponibles para personas cuidadoras, o por lo menos, no acceden en la misma medida en que pueden hacerlo otras personas. Entre las razones de esa falta de acceso, están el desconocimiento, la postergación de la solicitud hasta que la situación se vuelve insostenible o los sentimientos de vergüenza y miedo al estigma social. A partir de las experiencias recopiladas en diez entrevistas semiestructuradas, se realiza un análisis cualitativo, transversal y exploratorio de las experiencias de cuidado de colectivos invisibilizados, desde una perspectiva de género interseccional.

### **Palabras clave:**

Personas cuidadoras informales, evaluación de necesidades, utilización de servicios, accesibilidad, barreras, Gipuzkoa.

## 1. Sarrera

Azterlan honen berehalako aurrekariak Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2021erako aurrekontu irekien esparruan kokatzen dira<sup>1</sup>. Parte-hartze prozesu horretan, foru erakundeak ekimen ezberdinak proposatu zituen, eta hurrengo urtean herritarren babes handiena jasotzen zutenak ezartzeko konpromisoa hartu zuen. Hautatutako ideietako bat “zaintza balioesteko gizartea eraldatzeko proiektua” abian jartzea zen. Proposamena aurretiazko azterlan batean gauzatu zen. Azterlan horretan, aipatutako foru-lurraldean zainketen gizarte-antolaketa aztertu zen, eta eremu horretan aurrera egiteko lehentasunezko jarduera-ildoak identifikatu ziren (SIIS Gizarte Informazio eta Ikerketa Zerbitzua, 2022).

Ikerketa hori Gipuzkoako Diputatu Nagusiaren Arloko Berdintasun Organoak finantzatu zuen, eta, horren ondorioz, hainbat azterlan egin ziren, besteak beste, zaugarritasun egoerei aurre egin behar dioten familia-eremuko zaintzaile-taldeak identifikatzeko eta genero-ikuspegitik dituzten premia, arazo eta zailtasun espezifikoak aztertzeke (SIIS Ikerketa eta Informazio Sozialeko Zerbitzua, 2024). Helburu horiek lortzeko, bi metodologia osagarri aplikatu ziren. Alde batetik, nazioarteko literaturaren berrikuspen bibliografikoa, eta bestetik, sakoneko elkarrizketetan oinarritutako ikerketa kualitatiboa. Artikulu honek azterlan kualitatibo horren emaitzak jasotzen ditu.

Zaintzaileen profil ohikoena honako hau dugu: adin ertaineko emakume bat, etxean bizi diren pertsonak artatzeaz eta laguntzeaz arduratzen dena; kasu batzuetan, zerbitzu formalen laguntza jasotzen du (publiko zein pribatuen eskutik); beste batzuetan, berriz, ez. Baina badira beste zaintzaile-multzoz batzuk, dituzten ezaugarriak eta pairatzen dituzten inguruabar espezifikoak direla eta zaugarritasun-egoeran dauden taldeak bihurtu direnak. Literatura zientifikoa zaintzaile ezkutua edo ikusezin bihurtuak deitu izan die talde horretako kideei, ez baitituzte eskuratzen zaintzaileentzako dauden zerbitzuak edo baliabideak, ez behintzat beste batzuen maila berean. Zenbait faktorek esku hartzen dute gabezia horretan; besteak beste, ezagutzarik ezak, eskaria gehiegi atzeratzeak (egoera jasanezin bilakatu arte), lotsaizunak edo estigma sozialarekiko beldurrak. Talde ezkutua edo ikusiezin bihurtua den arren, geroz eta herrialde gehiagok jarri dituzte martxan horrelako jendea detektatzeko mekanismoak, eta pertsona zaintzaile horiek aurkitu eta ikusgai bihurtzeko zenbait neurri hartzen hasi dira euren laguntza-planetan.

Hau da azterketa honen helburu orokorra: familia barruan zaintzaile-lanak egiten dituztenen artean zaugarritasun-maila handieneko taldeak identifikatzea, eta jakitea zer behar, arazo eta zailtasun espezifiko dituzten, genero-ikuspegitik begiratuta. Horretarako, berariazko helburu hauek proposatzen ditu:

<sup>1</sup> <https://www.gipuzkoa.eus/es/web/partaidetza/aurrekontu-irekiak2021/>.

- Zaugarritasun-mailarik handiena duten pertsona edo familia zaintzaileak detektatzea, haien ezaugarri pertsonal, familiar, sozial eta testuinguruaren arabera aintzat hartuta.
- Zaugarritasun-maila handieneko pertsona zaintzaileen behar, arazo eta zailtasun nagusiak identifikatu eta aztertzea, zaintza familiarak eskaintzen dituzten testuingurua kontuan izanik.
- Zerbitzu, baliabide eta prestazioei dagokienez pertsona edo familia zaintzaile espezifiko horien beharrei ematen zaien erantzuna aztertzea eta horretaz gogoeta egitea.

Laburbilduz, alde batetik zaugarritasun-maila handiena pairatzen duten pertsona edo familia zaintzaileak detektatzea da xedea; bestetik, berriz, zer behar dituzten aztertzea, haien esperientzia kontuan hartuta eta genero-ikuspegi intersektionala irizpide dela. Talde espezifiko horien beharrei ematen zaien erantzunaz gogoeta egiteko eta hura hobetzeko oinarri izatea, horra azterketa honen egitekoa.

Artikulu honi bide ematen dion azterlanean (SIIS Gizarte Informazio eta Ikerketa Zerbitzua, 2024), bi metodologia erabili dira aipatutako xedeak lortzeko. Alde batetik, nazioarteko literaturaren azterketa bibliografikoa, zaugarritasun-arrisku handiena duten zaintzaile-taldeak identifikatzeko; bestetik, metodologia kualitatibo bat, sakoneko elkarrizketak eginez, Gipuzkoako zaugarritasun-maila handieneko pertsona edo familia zaintzaileen beharrik, arazoak eta zailtasunak zein diren jakiteko. Berrikuspen bibliografiko hori aldizkari honetan argitaratu berri zen beste artikulu baten oinarri izan zen (Peña, 2024); artikulu honek, berriz, jatorrizko azterlana osatzen duen zati kualitatiboa laburbiltzen du.

Hona artikuluaren edukia, zeina lau ataletan baitago banatuta. Lehenbizikoan, ikerketaren helburuak, erabili den metodologia eta artikuluaren egitura ageri dira. Bigarren atalean, Gipuzkoako esperientziak aztertu dira. Zehazki, azterlana egiteko erabilitako metodologia kualitatiboa deskribatzen du atal horrek, eta zaugarritasun-egoera larriena pairatzen duten Gipuzkoako zaintzaileen esperientziak, elkarrizketetako adierazpenak oinarri hartuta. Hirugarrenean, berriz, elkarrizketen eta haien ondorio nagusien azterketa egin da, zeharka aipatuz jorratutako alderdi nagusiak. Amaitzeko, artikuluan aipatutako erreferentzia bibliografikoak ageri dira.

## 2. Bibliografia-ikerketatik landa-lanera: Gipuzkoako zenbait zaintza-esperientzia

Zaintza informalararen alorreko zaintzaile ezkutua edo ikusezinen gaineko azterketa bibliografikoa du abiapuntu ikerketa honek. Jorratu den gaiari ekiteko, literatura zientifikoa ikusezintzat jotzen dituen taldeak aztertu dira: zaintzaile gazteak, adineko

zaindariak, landa-inguruneko zaintzaileak, talde minoritarioetakoak (atzerritar jatorrikoak, gutxiengo etnikoetakoak eta LGTBIQ+ taldekoak), gainkarga pairatzen duten pertsonak eta, zehazki, guraso bakarreko familietako buru diren emakumeak.

Sailkapen hori oinarri harturik, hau nabarmentzen du azterketak: zenbait elementu pertsonalek eta egiturazkoak dutela eragina talde horien zaintza-jardueran, eta laguntza-baliabide formalen erabilera urria dakartela. Kasu batzuetan, elementu horiek baldintzatu egiten dituzte baliabide formalak erabiltzeko zaintzaileen nahiak eta gaitasunak, eta laguntzak eskatzeko gogoia murriztu. Beste batzuetan, berriz, baliabideak eskuratzeko hesi eta oztopo bihurtzen dira elementu horiek, eta laguntza-zerbitzu formalen irismenetik kanpo uzten dituzte talde horietako pertsonak. Laburbilduz, prozesu horiek zaugarritasun-arriskuko egoeran uzten dituzte talde horietako zaintzaileak.

Azterketa bibliografikoak, beraz, hau nabarmendu du: ikusgai jarri behar direla talde zehatz horien egoera eta haien zaintza-jarduerak. Hori dela eta, lanaren bigarren zati hau azterketa kualitatibo moduko bat da (mugatua), eta hau izan du oinarri: identifikatutako profiletako jendeari egindako elkarrizketa erdiegituratuak. Beraz, zaintzaileen lekukotasunak izango dira ikerketa bibliografiko horren bigarren zati honen ardatz nagusia. Hartara, testuinguru egokia jarriko zaio literaturaren bidez jasotako informazioari, pertsona horien gaineko ezagutza zehatza dela medio. Eta hona horren emaitza: zaintzari buruzko istorioak edo kontakizunak talde horiek Gipuzkoan egiten duten zaintza-lanaren bizipenak azaltzen dituztenak.

Bestalde, proposatzen da elkarrizketetan jasotako material kualitatiboaren zeharkako azterketa egitea, genero-ikuspegi interseksionalaz baliatuz, zaintza-mundua erabat baldintzatzen baitute genero-desberdinkeriek. Azterketa horren bidez jakin dezakegu zer esperientzia dituzten zaintzaile partehartzaileek, zer faktorek areagotzen duten jorratutako taldeen zaugarritasun-maila, eta genero-harremanek nola baldintzatzen dituzten gizonen eta emakumeen zaintza-jarduerak eta zergatik ez dieten berdin eragiten batzuei eta besteei. Laburbilduz, hau da azterketaren xedea: testuinguru sozial zabalago batean kokatzea zaintza-esperientziak —zaintzen gizarte-antolakuntza—, eta zaintza informalaren alorrean genero-desberdinkeriek eragiten eta bultzatzen dituzten dinamiketako batzuk hautematea.

Hurrengo lerrootan azalduko da azterketa honetarako erabilitako prozesu metodologikoa; ondoren, genero-ikuspegiaren arabera aurkeztuko dira azterketaren emaitzak.

## 2.1. Metodologia

Ikusezin bihurtutako taldeetako hamaika laguni egindako hamar elkarrizketa erdiegituratu eta

presentzialek osatzen dute azterketa kualitatibo hau<sup>2</sup>. Hurrengo ataletan duzue parte-hartzaileak erakartzeko prozesua eta laginaren karakterizazio labur bat, eta azterketarako erabili diren tresna metodologiko nagusien deskribapena.

### 2.2.1. Parte-hartzaileak erakartzea

Talde oso espezifikoetako jendearen lagin oso txikiaenez, hirugarren sektoreko eta gizarte-arretako profesionalekin eta ezagunekin hitz egin genuen parte-hartzaileak aurkitzeko. Hasieratik saiatu ginen elkarrizketatuen kokapen geografikoa ahalik eta zabalena lortzen, testuinguru-aukera ere handia izan zedin. Edonola ere, parte-hartzaileak erakartzeko metodoak baditu kontuan izan beharreko berezitasun batzuk; besteak beste, gizarte-zerbitzuen bidez identifikatutako profiletako batzuen muturreko zaugarritasun-maila.

Hasieratik ageri zuten elkarrizketatzeko zailtasunik zenbait profilek; zehazki, neska-mutiko eta nerabe zaintzaileek. Haien zaugarritasun-maila handia ikusirik, hasieratik erabaki genuen txikitatik zaintza-lanetan jardundako gazte helduak elkarrizketatzea. Baina kasu horietan ere jorratuko beharreko gaien nolakotasunak erabaki zuten nola ekin elkarrizketei; izan ere, iraganeko esperientzia gogorak ekar zitzaketan gora, baita zenbait sufrimendu ere. Gizarte-langile baten bidez antolatu zen elkarrizketetako bat, eta elkarrizketatua joaten zen arreta-bulegoan egin zen, seguru senti zedin.

Ez zen erraza izan, halaber, ijito etniako zaintzaileekin harremanetan jartzea, eta alor horretan lan egiten duten zenbait erakunderekin hitz egin genuen. Emakume ijito gazteen Kera Elkartearen bidez jarri ginen harremanetan senarra zaintzen duen ijito etniako emakume batekin, Morenarekin. Alaba ondoan zuela egin zitzaion elkarrizketa, giroa atseginagoa izan zedin eta lasaiago hitz egin zezan.

Alabaina, ezin izan genuen hitz egin LGTIBQ+ taldeko zaintzaileekin, zenbait erakunderekin harremanetan jarri ginen arren. Kasu horretan, profil honetako norbaiten bila genbiltzan: 65 urtetik gorako pertsona bat (gerora, 60 urtera jaitsi genuen adina), LGTIBQ+ taldekoa eta bikotekidea zaintzen zuena, edo zainduaren aurrean bere nortasuna eta sexu-joera ezkutatu behar izaten zuen norbait. Hau zen bilaketa horren ardatza: LGTIBQ+ taldekoa izan behar zuen elkarrizketatuak, eta talde horrekiko gizartearen diskriminazioa jasandakoa zaintza-lanean. Lagundu ziguten erakundeek elkarrizketa-eskaria zabaltzen, baina ez genuen erantzunik jaso.

Bi arazo nagusi bistaratzen dizkigute azterketarako parte-hartzaileak aurkitzeko zailtasun horiek: alde batetik, literaturak aipatzen duen ikusezintasuna

<sup>2</sup> Elkarrizketetako bakoitzaren laburpena duzue irakurgai (SIIS Gizarte Informazio eta Ikerketa Zerbitzua, 2024: 33-52). Egindako hizkuntzan azaltzen dira, bitzitza-istorio gisa.

nabarmentzen dute. Zenbait talderekin harremanetan jartzeko arazoetan nabaritu da arazo hori; esate baterako, zaintzaile gazteekin jarduteko ahaleginetan. Bestetik, zalantzan jartzen dute literaturak egoera horietako batzuek erakusteko modua; esate baterako, LGTBIQ+ taldeko zaintzaileena. Hona galdera: bilatzen ari zen jendearen profilak urriak zirelako ez zen aurkitu parte-hartzailerik edo, literaturak besterik dioen arren, LGTBIQ+ taldeko kide izatea ez delako erabakigarria familia-ingurune zaintza-lanetan?

Kontuan izan beharreko beste datu bat zera da, gizonetako gutxiengoa direla profil guztietan, adineko gizon zaintzailearenean izan ezik, zeinen bila gogotik jardun arren. Elkarrizketatu diren hamaika lagunetatik hiru bakarrik ziren gizonetakoak. Kasu batzuetan, saiakera egin da emakumeen parte-hartzea bultzatzen (adibidez, guraso bakarreko familiaburu diren emakumeena), baina, nolana dela ere, bistakoa da zaintza-lanetan gizonen aldean emakumeek duten esku-hartze handia.

### 2.2.2. Elkarrizketatuen ezaugarriak, labor adierazita

Elkarrizketatuen profilak eta oinarritzko ezaugarriak ageri dira 1. koadroan.

Gogora dezagun, bestalde, familia barruko zaintza ez dela beti bakarkako lana izaten, eta ez dela erraza izaten zehaztea zein den zaindari nagusia, bat baino gehiago dauden kasuetan. Horren adibide dugu

lan honetan senar-emazte bikote bati egindako elkarrizketa. Desgaitasuna duen alaba heldu baten gurasoak dira biak, eta 65 urtetik gorakoak. Landa-ingurune zaintzari buruzko elkarrizketak, berriz, 94 urteko aita zaintzen duten bi laguni egin dizkiegu (semea eta alaba). Metodologia horri esker behatu dira familia barruan zaintza-lanak banatzeko dinamiketako batzuk, eta eginkizun horren azpian dauden desberdinkeriak, azterketa-atalean ikusiko direnez. Dena den, ez dezagun ahantzi baterako elkarrizketek —edo zenbait senideri egiten zaizkienek— zenbait alborapen eta arrisku dakartzatela eurekin, naturaltasunez mintzatzea eragozten dutenak, batez ere zaintzaren alderdi negatiboak buruz.

Ikertzailearen eta parte-hartzailearen arteko solasaldi gisa antolatutako zirenez elkarrizketak, gehienbat ingurune informalean egin ziren, batik bat leku publikoetan (kafetegiak eta liburutegiak, besteak beste). Elkarrizketak grabatu egin ziren —aldez aurretik elkarrizketatuen baimena jasota—, eta datuak anonimizatu (izen-abizenak, jatorrizko herriak edo herrialdeak), euren lehentasun pertsonalen arabera.

### 2.2.3. Informazioa jasotzeko tresna: elkarrizketa erdiegituratu presentziala

Elkarrizketa erdiegituratu presentziala izan da lan honetarako tresna metodologikoa; zehazki, bizitza-istorioen prozedura biografikoa deritzon metodoaren egokitzapen bat. Horretarako, elkarrizketen gidoi bat

1. koadroa. Laginaren karakterizazio laburra							
Profila	Izena*	Adina	Jatorrizko herrialdea	Bizi den herria	Lanbidea	Zainduarekiko ahaidetasun-maila (adina)	Zainduarekiko bizikidetzamota
Emakume zaintzaile gaztea	Haizea	28	Espainia	Donostia	Mediku-bisitaria	Ama (68) urte	✓
Emakume zaintzaile gaztea	Aisha	21	Bangladesh	Lasarte-Oria	Erizaintzako laguntzailea	Anaia (14)	✗
65 urtetik gorako gizonetako, desgaitasuna duen alaba zaintzen duena	José Miguel	73	Espainia	Orio	Erretiraturua	Alaba (48)	✓
65 urtetik gorako emakumea, desgaitasuna duen alaba zaintzen duena	Merche	72	Espainia	Orio	Erretiraturua	Alaba (48)	✓
65 urtetik gorako gizona	Ibarretxiki	79	Espainia	Elgoibar	Erretiraturua	Ezkontidea (79)	✓
Landa-ingurune zaintzailea, gizona	Jesus Mari	64	Espainia	Ordizia	Erretiraturua	Aita (94)	✗
Landa-ingurune zaintzailea, emakumea	Esti	53	Espainia	Ordizia	Komertziala	Aita(94)	✗
Ijito etniako zaintzailea, emakumea	Morena	55	Espainia	Irun	Langabea	Ezkontidea (61)	✓
Atzerritar jatorriko zaintzailea, emakumea, guraso bakarreko familia bateko kidea	Miuch	40	Kolonbia	Tolosa	Zaintza-alarreko langilea	Semea (12)	✓
Zaintzailea, emakumea, guraso bakarreko familia bateko kidea	Estitxu	45	Espainia	Donostia	Irakaslea	Semea, (10) eta alaba (12)	✓
Zaintzailea, emakumea, guraso bakarreko familia bateko kidea	Maite	45	Espainia	Errenteria	Langabea	Alaba (4)	✓

\* Izen asmatuak partehartzaileen anonimotasuna bermatzeko  
**Iturria:** egileak egina

prestatu zen, zaintza-harremana, egungo egoera eta etorkizunerako itxaropenak jasotzen zituena.

Ahozko narrazio-prozesu baten bidez datu kualitatiboak jasotzea oinarri duen ikerketa-metodo bat dira bizitza-istorioak direlakoak. Elkarrizketatuen zaintza-esperientziak ezagutzeko eta jasotzeko biderik egokiena zela erabaki zen, bi arrazoi hauengatik:

- Lehenik eta behin, lehen pertsonako narrazio-prozesuak erraztu egiten duelako jakitea nola interpretatzen duen elkarrizketatuak bere esperientzia eta nortasuna (kasu honetan, zaintzaren esperientzia eta nortasuna), eta nola ematen dion zentzua. Istorio lineala eta, aldi berean, irekia erakitzeak aukera ematen du zaintzaren iraganaz, orainaz, nahiez eta kezkez narraitiba bat prestatzeak, non protagonismo nagusia elementu hauek baitute: elkarrizketatuarentzat esanguratsuenak diren haiek. Izan ere, azaltzea erabakitzen den alderdien hautaketak berak ere adierazten digu zeri deritzaon elkarrizketatuak kontatzeko moduko gauza, hau da, esanguratsua.
- Bestalde, agian izendatu gabe zeuden —eta narrazioaile bera ere harrিতuta utz dezaketen— zenbait alderdiri buruzko gogoeta gisa ere eratu da narrazio-prozesua. Hona adibide bat: elkarrizketatutako neska gazteetako bat harrিতuta geratu zen konturatu zenean zenbat zaintza-lan egin zuen haurra eta nerabea zela. Elkarrizketan bere esperientzia azaldu zuen arte, ez zen jabetu egindako lanaren tamainaz.

Jakina, zaintzaren alderdi emozionala ere azaldu da elkarrizketetan. Malko, isilune eta irribarre artean plazaratu dira zailtasun-momentuen, etorkizunarekiko beldurren eta zainduarekiko maitasunaren gaineko oroitzapenak. Bihoazkie parte-hartzaileei eskerrik beroenak euren alor hain pertsonal eta intimoetara sarbidea emateagatik ikerketa hau egiteko.

### 3. Elkarrizketen azterketa

Atal honetako hamar elkarrizketa erdiegituratu bidez jasotako esperientziak oinarri hartuta, ikusezin bihurtutako taldeen zaintza-esperientzien zeharkako azterketa egin da, genero-ikuspegi interseksionala erabiliz. Lagina urria eta askotarikoa denez, azterketak ez du aukerarik ematen ikertutako profil bakoitzaren berariazko egoeretan sakontzeko. Beraz, hau proposatzen da: talde horietako zaintza-esperientziak erkide dituzten alderdiak jorratzea, haien ikusezintasuna eta zaurgarritasuna eragiten dutenak, hain justu ere.

Genero-ikuspegi interseksionalak, berriz, ikuspegi analitiko berezia eskaintzen du, eremu informaleko zaintza-lanek testuinguru dituzten harreman sozial asimetricoak ardatz dituena. Noski, jasotako lekukotasunetan argi eta garbi ageri da desberdinkeria hori, non nabarmen ikusten baita zaintza-ardurek askoz gehiago baldintzatzen dutela

emakumeen bizitza gizonena baino (Comas d'Argemir eta Chirinos, 2017).

Zaintzaren alderdi-aniztasuna da azterketa hau egiteko kontuan hartutako beste faktore bat. Bildutako lekukotzen arabera —eta literatura espezializatuaren ekarpenei jarraikiz—, elkarrekin lotutako alderdi moralak, emozionalak eta materialak hartzen ditu barne eremu informaleko zaintzak. Azterketarako baliagarriak dira alderdi horiek, baina zailak zaintzaileen esperientzietan bereizi eta hautemateko; hori dela eta, zedarritzen, kuantifikatzen eta identifikatzen ere nekeza den jarduera bilakatzen dute zaintza (Moré, 2021). Eremu pribatuko jarduna izateak, berriz, areagotu egiten ditu ezaugarri horietako batzuk, bai ezkutuan geratzen delako (etxe barruan), bai ikusezina bihurtu delako, eguneroko ekinean hain sustraituta egoteagatik. Oro har, ohikoa da hori eremu informaleko zaintzan, baina ikusezintasun-maila handiagoa jasaten duten taldeentzat are arriskutsuagoak dira elementu horiek, mugatu egiten baitute egindako zaintza-lanak aitortzeko zaindarien gaitasuna eta, honenbestez, erabilgarri dauden baliabideak eta laguntzak eskuratzeko.

Horregatik, zaurgarritasun-arrisku handieneko alor hauek jorratu ditu azterketak: zaintzaren alderdiak (elementu morala, emozionala eta materiala); zaintzaileen nortasunak eta haiei dagozkien ikusezintasun-faktoreak; laguntza-baliabide formalak eta informalak eskuratzeko aukera, eta zaintza-lanak zaindarien ongizatean eta bizitzako ibilbidean duen eragina.

#### 3.1. Zaintzaren alderdi morala eta etikoa

##### 3.1.1. Ahaidetasunak berekin dakarren betekizun morala, eta emakumeak "berez zaintzaile" izatea normaltzat hartzea

Honela adierazten da zaintza informalaren alderdi morala edo etikoa: zaintza-ardurak norberaren gainean hartuz, ahaidetasun-harremanek eurekin dakarten betekizun morala dela medio. Jasotako lekukotasunen arabera, belaunaldi arteko zein belaunaldi bereko familia-loturek dakarten erantzukizun-zentzuaren bidez bereganatzen dute zaindarien zaintzaren ardura, maitasuna eta afektuak tarteko direla.

Lekukotasun batzuek zera ere aipatzen dute, ahaidetasun-sistemako zaintzaren elkarrekikotasuna, zeina iraganean egindako edo etorkizunegiteko den zaintza-lan baten inguruan eratu baitaiteke. Horra, esate baterako, Ibarretxikiren kasua: ezkontide gisa dagokion betekizuna duelako zaintzen du emaztea, hark duela zenbait urte familia zaindu baitzuen. Maitek, berriz, zera dio, gurasoak zahartzen direnean berari egokituko zaiola haiek zaintzea, Ane alaba zaintzen lagundu ziotelako.

Alabaina, hau dio aztertutako literaturak: ahaidetasunaren, betekizunaren eta afektuen

araberako zaintzak betikotu egiten duela jarduera horren "normaltasuna" eta ikusezintasuna (Comas d'Argemir eta Chirinos, 2017). Zehazkiago esanda, ahaidetasunaren betekizun moralen araberako zaintza-ardurak ez dira berdintasunez banatzen, eta batez ere emakumeen bizkarrera joaten dira. Literatura feministak frogatua duenez, emakumeen zaintza-rola haien jarrera berezko eta naturalizat hartzearen ondorio da hori, eta genero-roletan eta sexuaren araberako lan-banaketan gauzatzen da (Celi eta Ezquerria, 2020).

Izan ere, elkarrizketetako kontakizunek eurek uzten dute argi zaintza-lana emakumeen esku geratzen dela gehienbat, eta naturalizat hartzen dela hala izatea. Zenbait lekukotzak hitzez adierazi dute "naturaltasun" hori: diotenez, emakume izateak —ama, alaba edo ahizpa— jarri ditu familiako zaindari nagusiaren lekuan. Beste emakume batzuek, berriz, harro diote bizitza osoa daramatela zaintza-lanean, eurek hala nahi dutelako, eta zaintzaren balioa azpimarratzen dute, euren nortasunari zentzua ematen diola eta. Garbi ikusten da hori Morenaren kasuan, zeinak familiako zaindari-rolaren inguruan eraiki baitu bere nortasun femeniinoa (ama eta emazte).

Emakume horien adierazpenek beste zera bat ere azaldu dute, elkarrizketako testuinguru espezifikotik landa ere jarduten direla zaintza-lanetan: aitagarreba edo amagarreba zaintzen, eremu informalean; enpleguan (etxeko lanen sektorean, haurren irakaskuntzan, alor soziosanitarioan). Kontuan hartzekoak dira, halaber, gizarte-zaintzaren alorrean dituzten ibilbide akademikoak. Ohartuko zinetenez, sektore feminizatuak dira aipatu ditugun guztiak.

Zaintza-lanak emakumeen eginkizuntzat jotze hori elkarrizketetako gizon-kopuruan ere ikusi da (oso gutxi), bai eta gizonen kontakizun batzuetan hautemandako jarretan ere. Literatura zientifikoaren arabera, hiru faktore hauek eragiten diete atzera gizonen zaintza-lanak direla eta: a) jakiteak, zaintza-lanetan izan duten sozializazio eskasagoari lotua; b) ahal izateak, ordaindutako lana dela medio produkzio-alorrean duten nagusitasunari eta etxeko lanetatik urruntzeari uztartua, eta c) nahi izateak, gizonak sozializatu dituzten eta maskulinitatea eraikitzen den genero-nortasunaren ondorioa (Tobío, 2012).

Elementu horiek agerian geratu dira elkarrizketa batzuetan, gizonetako zaindari gisa azaldu direnetan, alegia. Zaintza-lanari ez diote garrantzirik kentzen, baina kasu jakin batzuetan bakarrik ekiten diote gizonen zeregin horri. Alde batetik, beste irtenbiderik ez baldin badago. Hori zen, esate baterako, Ibarretxikiren kasua, zeinak beste hau ere gaineratu baitzuen: hiru semeek ez zutela esku hartzen emaztearen zaintza-lanetan. Bestalde, egin diren elkarrizketetatik ondorioztatzen denez, gizonen zaintza-ardura erretiratu ondoren hasten da (emakumeena ez bezala), ez aurretik, hau da, produkzioaren eremuan jarduteari utzi eta etxean denbora gehiago ematen hasten direnean.

Baina are esanguratsuagoak dira lekukotasunetan hautemandako gizonen absentiak. Nabarmenezkoa da Miuch eta Estitxu buru dituzten guraso bakarreko familietako aiten gabezia, garbi erakusten duena ez dutela inolako parte-hartzerik seme-alaben hazkuntzan. Deigarria da, halaber, anaia zaharren falta elkarrizketatutako bi neska gazteek egiten dituzten zaintza-lanetan.

### 3.1.2. *Gizarteak zaintza-lana naturalizat hartzea eta gutxietea*

Literatura espezializatuak agerian jartzen du gizarteak ez duela berdin baloratzen emakumeek eta gizonen egiten duten zaintza-lana, aipatu dugun zaintza "naturalizat jotzeko" joera dela eta. Zaintzaileak emakumeak badira, "bistakoa den zerbait" da zaintza: jakintzat ematen da emakumeak egin behar duela, eta oharkabean bezala geratzen da haren lana (Serrano-Pascual, Artiaga-Leiras eta Crespo, 2019: 164). Gizonen egiten duten zaintza-lanak, aldis, aintzatespen sozial handiagoa du, eta ezaugarri moral positiboek loturik azaldu ohi da. Egin diren elkarrizketek gaia argitzen ez badute ere, hortik jotzen du familia gurasobakar bateko ama batek, Estitxuk: atsedenaldi bat hartzearen laguntza eskatzen badu, badirudi ama gisa dagokion erantzukizunari uko egiten ari zaiola. Estitxuk matxismoarekin lotzen du —zuzen-zuzenean— jarrera hori. Kasu horretan, bistakoa da noiz egiten den zaintzari buruzko balorazio morala zaindaria emakumea baldin bada: zaintzarekiko izan behar omen lukeen jarrera urratzen duenean.

## 3.2. Zaintzaren alderdi materiala

Alderdi moraletik landa, eguneroko jardunean egiten diren hainbat gauza material zehatzen bidez ikusten da eremu informaleko zaintza. Ugariak eta era askotakoak dira, izan ere, elkarrizketatutako lagunek egiten dituzten lanak, eta zaintzailearen egoera espezifikoen araberakoak: eguneroko bizimodua kudeatzea (erosketak egin, kozinatu, garbitu, egunkaria erosi, fakturak ordaindu); zainduari ibiltzen, janzen edo garbitzen lagundu; zainduaren laguntzaile jardun, egunerokoan eta ospitaleratan dutenean; laguntza ekonomikoa eta medikoa eman, besteak beste. Laguntza medikoari dagokionez, zainduari medikuarekiko hitzorduetara laguntzeaz gain beste zenbait jardura espezializatu ere egiten dituzte zaindarien, zaintza formalaren eta informalearen mugak lausotzen dituztenak: medikamentuak harraraztea, sendaketak egitea, diagnostikoak jasotzea eta espezialistak bilatzea, adibidez. Zainduak mendekotasun-maila handia baldin badute, berriz, badirudi gainezka egiten dutela zaintza-lanek, integrala eta jarraitua izaten baita arreta.

### 3.2.1. *Nola banatzen diren lanak*

Zaintza emakumei dagokien lana dela dioen usteak badu eragina honetan ere: nola esleitzen diren arreta-

lanak, betiere genero-roleri eta sexuaren arabera lan-banaketa jarraikiz. Gizonak emakumeek baino zaintza-lan gutxiago egiten dute eta, ikerketa batzuen arabera, emakumeek baino gehiago egiten dituzte errutinazko lan ludikoak edo hain errutinazkoak ez direnak; esate baterako, gorpil-aulkian paseatzera atera zaindua, edo medikuarekiko hitzorduetara lagundu (Legarreta, 2012; Sagastizabal, 2019). Beste hau ere badiote ikerketa horiek: emakumeak baino gutxiago arduratzen direla gizonak zainduaren gorputzak behar duen arretaz (Artiaga, 2021).

Esti eta Jesus Mariren lekukotasunek garbi erakusten dute lan-banaketa hori: anai-arrebak dira, eta aita zaintzen dute, landa-ingurunean (argitu dezagun Estik intentsitate handiagoko zaintza-lana egiten duela). Zaintzaren alderdirik "etxetiarrenaz" arduratzen da Esti: kozinatu egiten du (beste ahizpa bat ere aritzen da horretan), garbitu edo erosketak egin. Zaintza medikoaz ere arduratzen da, eta hitzordu medikoetara laguntzen dio aitari, eta medikazioa ematen. Jesus Mari, aldiz, batez ere jarduera produktiboetan eta etxetik kanpokoetan jarduten da: landa-ingurunea izaki, lurra lantzen du, indar fisikoa edo trebetasun teknikoak zein mekanikoak eskatzen dituzten eginkizunetara arduratzen da (automobila, etxeko instalazio elektrikoa).

José Miguelek eta Merche, berriz, bien artean zaintzen dute desgaitasuna duen alaba heldua. Egun, gizona arduratzen da gehienbat alaba zaintzeaz; duela urte batzuk, aldiz, emaztea. Aipa dezagun alabaren kirol-ibilbideari ere loturik dagoela aitaren zaintzarekiko ardura, lehen aipatu dugun elementu ludikoa tarteko dela.

### 3.3. Zaintzaren alderdi emozionala

Eginkizun materialei ez ezik, zaintza emozionalari ere lehentasuna ematen diote elkarriketatuek, eta, diotenez, hori da zailtasunik eta nekerik handiena eragiten diena. Zainduaren ongizate psikologikoari, osasun mentalari eta bizipozari eustea da lehentasuna, eta xede horrek etengabeko ardura eskatzen dio zaintzaileari. Morenaren kontakizunak dioenez, esfortzu mental handia dakar berekin zaintza emozionalak, eta gainkarga eragin dezake. Ez da nabaritu elkarriketatuan gizonen eta emakumeen arteko alde espliziturik gai hori dela eta, baina literaturak dioenez, emakumeen bizkar gainera erortzen da —nabarmenki eta neurrik kanpo— zaintza emozionala eta horrek dakarren karga mentala (Alonso Fernández de Avilés *et al.*, 2021).

Gainera, inolako jarduera material praktikotan gauzatzen ez denez, etengabea baina ikusezina izan daiteke zaintza emozionala, eta —horregeatik— identifikatzen zaila. Garbi ikusten da hori gaixotasun mentalen bat dutenen arretan, eta hala dio Haizearen lekukotasunak. Txikitatik ari da zaintzen ama, zeinak nahasmendu mental larri bat baitauka. Mendekotasuna ikusgarria ez den egoeretan zaintza-lana ikusteko zailtasunaren adibide dugu Haizearen

kasua. Horrelakoetan, etengabe erne egon behar izaten du zaindaria, eta horrek izugarritzko akidura eragin diezaiokie.

### 3.3.1. Anibalentziak, afektuak eta afekturik ezak

Zaintzaren alderdi subjektiboa hain esanguratsua izaki, ez da harrizkoa elkarriketatuen kontakizunetara karga emozional handia izatea eta emozioen, sentimenduen, afektuen eta afektu-gabezien bidez adieraztea (Carrasco *et al.*, 2011). Lekukotasunek erakusten dutenez, sentimendu hauek sortzen dira zainduaren eta zaintzailearen artean: elkarrekiko maitasuna; tristezia, mendekotasun-egoeratik; lotsa, nahasmendu mentalagatik, eta erruduntasun-ustea, hartutako edo esleitutako zaintza-ardurak ez betetzeagatik.

Ohikoa izaten da, bestalde, afektu horiek elkarrekin nahastea eta anibalentziaz betetako zaintza-bizipenak sortzea, non harro sentitzen baita zaindaria egiten duen zaintza-lanagatik baina, aldi berean, ohartzen baita zenbateko inpaktua izan duen jarduera horrek bere ibilbide pertsonalean eta bizitzan. Lekukotasun bakan batzuek, berriz, sakrifizioa eta ezina aipatzen dituzte zaintza-lanaren ezaugarri nagusitzat.

### 3.4. Zaintza-lanaren garrantzia nortasunaren eraikuntzan, eta ikusezintasun-faktoreak

Zaintza-lanaren funtsezko elementuak dira zaintzailearen nortasuna eraikitzea eta erabilgarri dauden baliabideak eskuratzea, talde ikusezineko buruzko literaturak dioenez. Ikerketa honen irismenetik kanpo geratzen da gai horren gaineko azterketa integrala egitea baina, hala eta guztiz ere, jarraian jorratuko dira zenbait ikusezintasun- eta zaugarritasun-faktore, zainduen zein zaintzaileen nortasun jakin batzuen eraikuntzari lotuak.

#### 3.4.1. Zaindua eta haren beharrak lehenestea

Jaso diren kontakizun gehienek badute elementu komun bat: zaintzailearen eta haren beharren aurretik daude zaindua eta haren beharrak. Eragin handia du jarrera horrek zaindariaren zaugarritasunean eta ongizatean, gainkarga dela eta.

Zaintzaren kontakizuna egitean ere atzematen da elementu hori. Izan ere, elkarriketatuen gidoiak zaintzailea lehenetsi duen arren, kasu batzuetan oso neketsua izan da zaintza-lanaren gaineko informazioa eskuratzea, kontakizun horiek zainduaren esperientzia lehenesten baitute, haren zailtasunak aztertzen eta egoera horrek haren osasunean, ongizatean eta erresilientzian duen eraginari erreparatzen; zaintzailea, berriz, bigarren mailan geratu da. Horrelakoetan, "norberak bere burua ikusezin bihurtzen" duela ematen du, baina ez dago argi zergatik, kontakizunean ez baitira agertu elementu horiek.

Bestalde, mendekoaren beharrak zaintzailearen beharren gainetik jartzen direla ageri den kontakizunetan berriro aipatzen dira afektuak (maitasuna, adibidez) zaintzaren eragile gisa, norberaren beharrei erreparatu gabe. Beste batzuen iritiz, berriz, norberaren burua alde batera uztea da lehenespen hori, agian zaintza-beharrak irauten duen eperako soilik.

### 3.4.2. Zaintza-beharrak edo -kargak gutxitzea

Bestalde, zenbait kasutan zera nabari da, gutxietsi egiten dela zaintzaren beharra edo hark berekin dakarren karga, beharbada zainduaren nortasuna ezkutuan gordetzearen (literaturaren arabera), haren mendekotasuna edo karga izatearen sentsazioa ukatuz (Knowles *et al.*, 2016; Morgan *et al.*, 2021).

Dena den, gehiago ageri da elementu hori gizonen kontakizunetan emakumeenetan baino, eta bat dator zaintzaile gizonetzkoen nortasunen gaineko postulatutako teorikoekin. Izan ere, garbi geratu da gizonen arteko zaintza-jarduera identitate maskulinoaren aurkako desafio gisa ikus daitekeela (Ribeiro, Paúl eta Nogueira, 2007), kulturalki emakumeen eginkizuntzat jotzen den lana baita zaintza. Ikuspegi horretatik aztertuta, zaintza-lanean birformulatu edo birnegoziatu egiten da identitate maskulinoaren eraikuntza, zenbait estrategiaren bidez.

Besteak beste, jarrera estoikoak eta beregainak goresten dira eta, kasu askotan, harrotasunez eta maskulinitatez bizi ohi da egoerari bakarka aurre egiteko gaitasuna (Finn eta Boland, 2021); laguntza eskatzea, berriz, ahuldadearen adierazle gisa. Garbi atzematen dira faktore horiek landa-ingurunean zaindari aritzen den Jesus Mariren adierazpenetan: bere aitak autonomia handia duela dio, eta ez duela arreta handirik behar. José Miguelen hitzetan ere nabari da gutxieste hori, zera baitio, ez duela inolako zailtasun izan desgaitasuna duen alaba zaintzeko; bestalde, ez du kezkarik adierazten etorkizuneko zaintzaz. Bestelako iritzia du emazteak, zeinak 114 urte biziko dela baitio, txantxetan.

### 3.4.3. Zaintzailearen rola nork bere gain hartzea

Zaintza-karga edo -beharrak gutxiesteko joeraz gain (batez ere adineko gizon zaintzaileen artean), nortasun maskulinoa birnegoziatzeko beste estrategia bat ere aipatzen du literaturak: ezkontideen elkarrekiko betekizun gisa onartzea zaintza, eta hari gogotsu ekitea (Ribeiro, Paúl eta Nogueira, 2007; Romea eta Del Rincón, 2016; Comas d'Argemir eta Chirinos, 2017). Norberaren zaintzaile-rolari tinko atxikitzea eragin dezake joera horrek, eta kanpoko laguntzak eskatzen berandutzea edo laguntza horri esplizituki uko egitea.

Kasu honetan, gizonen zein emakumeen artean ageri da zaintzaile-rolarekiko atxikimendu irmo hori: zaintzaileak dio bera dela pertsonarik egokiena lan

horretarako, beste inork baino hobeto ezagutzen duela zaindua, eta ez dela fidatzen familiarrik kanpoko inoren zaintza-lanaz. Lotura familiarrak jotzen dira zaintzaren bermerik hoberentzat, eta zaintza informalarik legitimotasuna, benetakotasuna eta kalitatea egozten zaizkio, lan-harremanen bitartez ematen denaren gainetik.

Elkarrizketetan, familia barruko zaintza lehenetsi dute beren burua zaintzaile trebetzat daukatenean, eta zenbaiten iritiz, zainduak berak ere nahiago du zaintza-mota hori. Zainduen beharrak zaindariarenaren gainetik jartzeko beste modu bat da hori, eta ikusezintasun-faktore gehigarria; bestalde, familia barruko zaintza-lana sustatzen du.

Deskribatu diren zaintzaileen lehenespenek, uko egiteak, gutxiespenek eta rol-atzitzeak funtsezko eragina dute zaintzaileen osasunean eta ongizatean, egoera jasanezina bihurtzen den arte atzeratu baitezakete laguntza-eskakizuna, edo laguntza formalei zein informalei uko egitera bultzatu. Literaturaren arabera (Campbell *et al.*, in Finn eta Boland, 2021), gainkarga eragin dezake norberak zaindariaren rola bereganatzea. Esate baterako, Estiri eta Ibarretxikiri eginiko elkarrizketetan ikusten da hori: kasu bietan, laguntza formala zein informala ez eskatzea edo eskaera atzeratzea gainkarga eragin diezaikeke zaintzaileei, eta hala aitortzen dute eurek ere. Nabarmenezkoa da, bestalde, oso gutxi aipatu dela autozaintza elkarrizketetan.

## 3.5. Laguntza-baliabideak eskuratzea

Deskribatu berri den laguntza-errefusaz gain, hori dira elkarrizketetan aipatutako baliabideak ere, erabiltzen direnak eta ez direnak.

### 3.5.1. Laguntza formalak

Alde batetik, zenbait elkarrizketatutako diote erakunde publikoek ez dietela jaramonik egiten, batez ere gizarte-zerbitzuek. Dena den, elkarrizketatu bakoitzaren egoera zehatzaren arabera izan dira horri buruzko adierazpenak. Batzuek gizarte-zerbitzuekiko mesfidantza handia azaldu dute, eta haien jardueren aurrean babesgabe sentitzen direla zioten.

Mendekotasun-maila aitortu bat zegoen kasuetan, berriz, aldakorra zen laguntza formalen erabilera, bai ekonomikoena (familia ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoa), etxeko arretarena (etxeko arreta zerbitzua, telelaguntza) eta eguneko arretarena (eguneko zentroak). Elkarrizketatu batzuek ziotenez, jasotzen duten dirulaguntza ez da nahikoa, edo oztopo asko daude haiek eskuratzeko; beste batzuek, berriz, zera zioten, ez zutela laguntzarik eskatu haiek jasotzeko eskubidea eduki arren. Lehenago ere adierazi dugunez, erabaki horietan eragin handia du —kasu askotan— familia barruko zaintza-lana lehenesteak, zainduaren asmoei jarraikiz edo zaintza-bermerik onena lotura familiarrak direlakoan.

Elkarrizketatuetako batzuek, bestalde, emakumeak kontratatzen dituzte zaintzarako edo etxeke lanetarako; zaintzarako bada, haurrak, helduak eta desgaituak artatzen dituzte kontratatuek. Bistakoa da, beraz, zaintza-lanaren feminizazioa, aurrez aipatu dugun emakumeen zaintzaren naturaltasunaren adierazle.

### 3.5.2. Laguntza informalak

Familia-sarea da elkarrizketatuek erabiltzen duten laguntza-baliabide nagusia, eta era askotakoa izan daiteke: aitona-amonen dirulaguntza hazkuntza-gastuetarako; umeak zaintzen esku hartzea, kontziliazio-baliabide gisa; anai-arreben artean banatzea lanak, zaintza-karga arintzeko; seme-alaben laguntza senideak zaintzeko, zaindariak atsedean har dezan eta, etorkizunari begira jarrita, zaintza familiarra bermatzea, osasun-arazoak direla-eta zaindari nagusiek jada lan hori egin ezin dutenerako.

Honenbestez, sare familiarra da zaindarien euskarri eta babes nagusia, laguntza formalen gabeziei eta arbitrariotasunei kontrajarria. Maiteren adierazpenek garbi erakusten dute zenbateko babesari ematen dien sare familiarrek guraso bakarrek familiei. Guraso bakarrek familia bateko buru da Maite, berak hala erabakituta, eta zera nabarmentzen du haren adierazpenek, sare horren babesari esker (aita, ama eta ahizpak) erabaki zuela ama izatea.

Honenbestez, zaugarritasun-faktore erabakigarria da sare familiarrik eza, eta hala adierazten dute Miuchen kasuak (atzerritar jatorriko emakume zaindaria, zeinaren sare familiarra Kolonbian baitago), Haizearenak eta Aisharenak (familiarren babesik ez duten zaintzaile gazteak biak ere). Azpimarratzeko modukoa da bi neska horiek adierazi zutena: eremu formaletik eskaintako baliabideetatik, arreta psikologikoa izan dela esanguratsua (oso positibotzat jo dute biek), beharbada familiarrik jaso ez duten laguntzaren konpentsazio gisa (eskasa, inondik ere) hartu dutelako.

### 3.6. Zaintzaren inpaktua eta zaugarritasuna areagotzen duten faktoreak

Eremu informaleko zaintza-ardurek inpaktu handia eragiten dute zaintzaileen osasunean eta ongizatean, are handiagoa laguntzarik edo babesik jasotzen ez dutenen eta lehendik ere osasun-arazoak zituztenen artean. Zenbait lekukotasun jaso dira zaintza-lanak sortzen duen nekeaz eta higaduraz, bai fisikoaz bai emozionalaz. Elkarrizketatu diren pertsonetako batzuen osasun-egoera ahulean eta estres- zein antsietate-aldietan atzematen da neke hori.

Bestalde, zaintza-lanetan jarduteak kalte nabarmena egiten die zaintzaileen ibilbide sozialei, akademikoei eta lanekoei. Zenbaitek adierazi dutenez, aisialdirako aukerak eta harreman sozialak galdu dituzte, etxean geratu behar izaten baitute, zaintza-lanak egiten.

Jasan dituen arazo akademikoen berri eman du zaintzaile gazte batek, Haizeak; besteak beste, utzi egin behar izan zituen goi-mailako ikasketak, ama zaindu behar zuen eta. Haurren zaintzari dagokionez, berriz, zera esan dute elkarrizketatutako emakumeek: lan-aukerak galdu dituztela, lanaldiak murriztu egin dizkietela eta, kasuren batean, lan-merkatutik irten egin direla, seme-alabak zaindu behar zituztelako.

Baina elkarrizketatu guztiek ez dituzte maila berean jasan zaintzaileen ongizateari eta bizi-ibilbideari zaintza-lanak eragiten dizkien kalteak, baizik eta zaindarien zaugarritasuna eta erantzukizunaren inpaktua areagotzen duten egiturazko zenbait faktoreren arabera.

Jarraian daude zaugarritasuna areagotzen duten faktore nagusiak, elkarrizketatutik erauziak: generoa, adina, gurasobakartasuna, baliabide ekonomiko urriak eta, azkenik, jatorri etnikoa eta egoera administratiboa. Kategoria desberdinetakoak dira, baina elkarrekin lotura estua dutenak, zenbait desberdinkeria-ardatzen elkargunea baitira. Guraso bakarrek familien zaugarritasuna —adibidez— ez dago ulertzerik hura zeharkatzen duten genero-, jatorri-, etnia- eta klase-desberdinkeriak aintzat hartu gabe. Halaber, ijito etnikoa den Morena zaintzailearen diru-sarrera urrien eragileak antigitanismoak eragindako egiturazko diskriminazio-arrazoak dira.

#### 3.6.1. Generoa

Zalantzarik gabe —eta azterketa honetan garbi ikusi denez—, generoa faktore erabakigarria da generoa zaintzaileen zaugarritasunari dagokionez. Genero-harremanek erabakitzen dute zaintzaren maiztasuna, intentsitatea eta inpaktua, gizonen eta emakumeen artean desberdina den zaintza-arduren banaketaren araberrakoak guztiak ere, eta emakumeak dira alor horietan guztietan ondorioz larrienak pairatzen dituztenak.

Genero-indarkeriarena, berriz, ez da aztertu, baina nabarmendu beharrekoa da, ondorio larriak eragiten ditu eta. Izan ere, egiazki da esanguratsua hain lagin laburrean (hamar elkarrizketa) indarkeria matxista esplizituki agertzea haietako bietan, parte-hartzaileak hautatzeko erabilitako —eta atal metodologikoan azaldutako— baheak gorabehera.

Bat datoz bi kasu horiek —Miuchena, atzerritar jatorriko zaindaria, eta Haizearena, nahasmendu mentala duen amaren zaintzaile gaztea— zenbait azterketarekin, zeinen arabera elkarrekin lotuta baitaude atzerritar jatorria eta osasun mentaleko arazoak indarkeria matxista jasateko arriskuarekin eta haren ondorioekin. Lehenbizi aipatutako kasuan, administrazioaren irregulartasunak, sare familiarrik eta sozialik ez izateak eta beste zenbait faktorek areagotu dute indarkeria matxistaren inpaktua gure inguruko atzerritar jatorriko emakumeen artean (Arnoso *et al.*, 2013). Bestalde, osasun mentaleko

nahasmenduetan, genero-indarkeria arrisku-faktore gisa identifikatu da (Osasun Mundu Erakundea, 2013). Haizeak zioenez, zaintza-beharrak areagotzea eta, honenbestez, zaugarritasuna handitzea eragin dezake horrek, bai zaindariarena, bai zaintzaileena.

### 3.6.2. Adina

Bi zaintzaile gazte helduren adierazpenek erakusten dutenez (Haizeaz eta Aishaz ari gara), arrisku-faktore erabakigarria da adina zaindarien artean. Zaintza-lanetan aritzen diren neska, mutiko eta nerabeek ez dute horretarako tresna egokirik, ezta zaintza bera identifikatu eta aitortzeko ere; hori dela eta, muturreko zaugarritasun- eta ikusezintasun-egoeran jarduten dira. Zaintze-lanean aritzen diren gazte helduek euren lanean, harreman sozialetan eta ibilbide akademikoan pairatzen dituzte horren ondorioak, bizitzaren une erabakigarrietan gainera; hori dela eta, epe luzeko inpaktua eragin dezake jarduera horrek haien bizitzetan.

Gazte zaintzaileen egoera ez ezik, adinekoena ere aipatu behar da; esate baterako, Ibarretxikirena, zeinak 79 urte baititu eta emaztearen zaindari jarduten baita. Adineko jendeak eta mendekoek behar duten zaintza-intentsitate handiak —alde batetik— eta zaindarien osasun-egoera kaskarrak —bestetik— bat egin dezakete eta horien hauskortasuna areagotu.

### 3.6.3. Gurasobakartasuna

Guraso baten falta ez badu konpentsatzen sare familiarraren laguntza integralak (Maiteren kasua, adibidez), ziurgabetasun-egoera oso larrian geratzen dira familia gurasobakarretako buru diren emakumeak. Kontziliaziorako dituzten zailtasunek kalte egin diezaiekete gizarte-harremanetan zein lan-alorrean, eta gainkarga materiala eta emozionala eragin. Hala erakusten digute Estitxuren eta Miuchen

kasuek. Bestalde, hazkuntza-gastuei aurre egiteko diru-iturri bakarra izateak areagotu egiten du emakume horien zaugarritasun ekonomikoa.

### 3.6.4. Baliabide ekonomiko urriak

Baliabide ekonomiko urriak ez dira berariazko azterketa-elementu izan lan honetan, baina zalantzarik ez dago elkarriketatuen estatus sozioekonomikoak eragina duela haien zaintza-jardueran. Beste zaugarritasun-bektore batzuekin batera (generoa, jatorri etnikoa) agertu ohi da, eta nabarmen eragiten dio zenbait laguntza-baliabide eskuratzeko aukerari (etxe-zerbitzua, adibidez). Bada aipatu ez den baina hemen jaso beharko litzatekeen beste alor bat ere: bizitegi-prekariatatea, eta zaintza-lanean duen eragina. Hala dio Morenak, esate baterako: etxebizitza duinago bat eskatzen du, bere senarraren beharrei egokitua, orain daukanak hezetasunak eta oztupo arkitektonikoak baititu.

### 3.6.5. Jatorri etnikoa eta egoera administratiboa

Miuchen kasuak argi erakusten du elkarrekin lotzen direla desberdinkeria- eta diskriminazio-ardatzak, eta zaugarritasuna areagotzen duten faktore gisa jarduten. Atzerritar jatorrikoak izateak eta egoera administratibo irregularrean egoteak ziurgabetasun ekonomikoa eragiten die emakume horiei, eta areagotu egiten du genero-indarkeria jasateko duten arriskua. Ikasketak homologatzeko oztupoek, arrazagatiko aurreiritziek eta laguntza-sare familiarrik ezak, gainera, laneko sektore prekarizatu eta gutxietsietara (zaintza-lanetara, esate baterako) bultzatzen ditu emakume horiek; Miuch, besteak beste. Familia- eta lan-alorretan jarduten da zaindari Miuch, eta beharbada haren adierazpenek jaso dituzte ondoen zaintza-sistema osoko bidegabekeriak eta desberdinkeriak.

- ALONSO FERNÁNDEZ DE AVILÉS, B. (koord.) (2021): *Carga mental y emocional de los cuidados: ¿la última frontera? Resumen ejecutivo*, Murtzia, Fundación Cepaim, <<https://www.cepaim.org/sites/default/files/legacy-wordpress-documents/2021/12/Carga-Mental-y-Emocional-de-los-Cuidados-Resumen-ejecutivo.pdf>>.
- ARNOSO, M.; ARNOSO, A.; MAZKIARAN, M. eta IRAZU, A. (2013): "Mujer inmigrante y violencia de género: factores de vulnerabilidad y protección social", *Migraciones. Publicación del Instituto Universitario de Estudios sobre Migraciones*, 32. zb., 169-200, <<https://revistas.comillas.edu/index.php/revistamigraciones/article/view/912>>.
- ARTIAGA, A. (2021): "Cuidados comunitarios y gobierno común de la dependencia: las viviendas colaborativas de personas mayores", *Revista Española de Sociología*, 30. bol., 2. zb., 29, <<https://doi.org/10.22325/fes/res.2021.29>>.
- CARRASCO, C.; BORDERÍAS, C. eta TORNS, T. (2011): "El trabajo de cuidados, antecedentes históricos y debates actuales", in CARRASCO, C.; BORDERÍAS, C. eta TORNS, T. (ed.), *El trabajo de cuidados. Historia, teoría y políticas*, Madrid, Catarata, 13.-95. or.
- CELI, P. eta EZQUERRA, S. (2020): "El rol de los espacios comunitarios de cuidado de personas mayores en la democratización de los cuidados en la ciudad de Barcelona", *Revista Interdisciplinaria de Estudios de Género de El Colegio de México*, 6. bol., 485. zb., <<https://doi.org/10.24201/reg.v6i0.485>>.
- COMAS D'ARGEMIR, D. eta CHIRINOS, C. (2017): "Cuidados no pagados: experiencias y percepciones de los hombres cuidadores en contextos familiares", *Revista Murciana de Antropología*, 24. zb., 65.-86. or., <<https://revistas.um.es/rmu/article/view/310181>>.
- FINN, C. y BOLAND, P. (2021): "Male family carers' experiences of formal support – a meta-ethnography", *Scandinavian Journal of Caring Sciences*, 35. bol., 4. zb., 1027-1037. or., <<https://doi.org/10.1111/scs.12919>>.
- KNOWLES, S.; COMBS, R.; KIRK, S.; GRIFFITHS M.; PATEL, N. eta SANDERS, C. (2016): "Hidden caring, hidden carers? Exploring the experience of carers for people with long-term conditions", *Health & Social Care in the Community*, 24. bol., 2. zb., 203.-213. or., <<https://doi.org/10.1111/hsc.12207>>.
- LEGARRETA, M. (2012): "El tiempo donado en el ámbito doméstico-familiar. Estudio sobre el trabajo doméstico y los cuidados" [doktore-tesia], Euskal Herriko Unibertsitatea.
- MORÉ, P. (2021): "Migration, ageing and transnational care arrangements of Ecuadorian care workers in Spain", *Population, Space and Place*, 28. bol., 5. zb., e2547, <<https://doi.org/10.1002/psp.2547>>.
- MORGAN, T.; DUSCHINSKY, R.; GOTT, M. eta BARCLAY, S. (2021): "Problematising carer identification: a narrative study with older partner's providing end-of-life care", *SSM - Qualitative Research in Health*, 1. bol., 100015, <<https://doi.org/10.1016/j.ssmqr.2021.100015>>.
- OSASUN MUNDU ERAKUNDEA (2013): *Global and regional estimates of violence against women: prevalence and health effects of intimate partner violence and non-partner sexual violence*, Geneva, Osasun Mundu Erakundea, <<https://iris.who.int/handle/10665/85239>>.
- PEÑA, S. (2024): "Revisión de la literatura sobre personas cuidadoras ocultas o invisibilizadas", *Zerbitzuan*, 84. zb., 7.-34. or., <<https://doi.org/10.5569/1134-7147.84.01>>.
- RIBEIRO, O.; PAÚL, C. eta NOGUEIRA, C. (2007): "Real men, real husbands: caregiving and masculinities

in later life", *Journal of Aging Studies*, 21. bol., 4. zb., 302.-313. or., <<https://doi.org/10.1016/j.jaging.2007.05.005>>.

ROMEA, A.C. eta DEL RINCÓN, M.M. (2016): "De marajá a mayordomo: hombres de edad avanzada asumiendo tareas de cuidado", *Acciones e Investigaciones Sociales*, 36. zb., 91.-112. or., <[https://doi.org/10.26754/ojs\\_ais/ais.2016361489](https://doi.org/10.26754/ojs_ais/ais.2016361489)>.

SAGASTIZABAL, M., (2019): *La triple presencia. Estudio sobre el trabajo doméstico-familiar, el empleo y la participación sociopolítica*, Bilbo, Ciencias Sociales saila, Euskal Herriko Unibertsitatea.

SERRANO-PASCUAL, A.; ARTIAGA-LEIRAS, A. eta CRESPO, E. (2019): "El género de los cuidados: repertorios emocionales y bases morales de la microsolidaridad", *Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, 166. zb., 153168, <<https://doi.org/10.5477/cis/reis.166.153>>.

SIIS GIZARTE INFORMAZIO ETA IKERKETA ZERBITZUA

(2024): *Zaintza-lanak zaugarritasun bereziko egoeran egiten dituzten pertsona, talde eta familiei buruzko azterketa / Estudio sobre la situación y necesidades de personas, colectivos o familias que cuidan en una situación de especial vulnerabilidad*, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatu Nagusiaren Alorra, <<https://www.siiis.net/eu/investigacion/ver-estudio/641/>>.

SIIS GIZARTE INFORMAZIO ETA IKERKETA ZERBITZUA

(2022): *Estudio sobre la organización social de los cuidados en Gipuzkoa e identificación de las líneas prioritarias de actuación*, l. g., Gipuzkoako Foru Aldundia.

TOBÍO, C. (2012): "Cuidado e identidad de género. De las madres que trabajan a los hombres que cuidan", *Revista Internacional de Sociología*, 70. zb., 399.-422. or., <<https://doi.org/10.3989/ris.2010.08.26>>.